

GIG 16

ZUMAIAKO ZIKLIKOTASUN ESTRATIGRAFIKOA

BALIO INTRINTSEKOA: 4

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,5

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Muga geokronologikoez gain, bada Geoparkean beste alderdi bat, interes geozientifiko handia pizten duena nazioartean: Milankovitchen ziklo astronomiko-klimatikoek Zumaia inguruko flyscheko arro-ken sedimentazioan izan zuten eragina. Eragin hori Daniarraren bukaera aldean nabarmentzen da bereziki, eta nazioarteko zenbait argitalpenek azpimarratu egin dute haren garrantzia duela gutxi.

Aitzgorri formazioan kareharriak eta tupa gorrixkak ageri dira tartekatuta etengabe, 5 pare inguruko paketetan bilduta. Bi ziklikotasun horiek Milankovitchen prezesio-zikloaren (20.000 urte) eta eszentrikotasun-zikloaren (100.000 urte) ondorio dira, hurrenez hurren. Mugimendu horiek gure planetak jasotzen duen Eguzki-energiaren kantitatea kontrolatzen dute, eta horrenbestez, baita klima ere; klimak, halaber, eragin handia du alterazio tektoniko garrantzitsurik ez duten itsas hondoetako sedimentazioan. Ziklikotasun hori ez da berdin hautematen ebakiduraren sektore guztietan, eta badirudi hori azaleramenduan bereizteko zailagoak diren ordena handiagoko beste ziklo batzuen ondorioa dela.

Ebakiduraren Eozenoko eta Kretazeoko zatian askoz zailagoa da ziklikotasun hori bereiztea, turbiditate asko eta asko iritsi zirelako arro-hondoetara.

NOLA BERTARATU

Azaleramendurik adierazgarrienak San Telmo ermitaren inguruan daude. Ermitatik ipar-mendebalderantz joan daiteke oinez horretarako egokitutako bidexkatik, *pretty cycles* deiturikoetara iritsi arte (IP A4).

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ, itsaslabarraren gainaldetik. Itsasotik begiraturaz gero, Daniarreko zikloestratigrafia osoa erreproduzi daiteke.



Daniarreko formazioaren ikuspegi orokorra: ziklikotasun estratigrafikoa oso nabarmena da.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 559500 m / Y= 4794402 m / Alt.= 10 m



Pretty cycles deituriko eszentrikotasun-zikloak, gertutik ikusita.